

Munduko

III. Rugby Txapelketa

Bihar hasiko da munduko hirugarren txapelketa Hego Afrikan, finala izan daitekeen Hego Afrika-Australia neurketa sutsuarekin. Ekainaren 24ra arte 32 partidu jokatu dira bederatzizelaian. Aurreneko Mundiala hego hemisferioan jokatu zen, Zeelanda Berriaren garaipenarekin. Bigarrena, berriz, Europa-

ko V Nazioetan, Australiaren garaipenarekin. Hirugarren honetan, Europak irabazi nahi du Ingalaterra edo Frantziarekin. Txapelketa honekin, nazio bat izaten saiatzen ari direla erakutsi nahi dute hegoafrikarrek. Chester Williamsek, etxeko jokalaribeltz bakarrak, lesioa izan du eta ez du jokatu.

Hego Afrikako ateak zabalik

Mandelak emango duen Webb Ellis kopa irabazteko faboritoak Australia, Zeelanda Berria eta Ingalaterra dira

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Hego Afrika kirol eta politika albiste iturri bihurtuko da ondorengo hilabeteetan, Rugby kirol nagusia izateaz gain, ardatz garrantzitsua da hegoafrikarren eguneroko bizitzan. Apartheid-ari amaiera eman ziotenetik, 1.992. urtean, Hego Afrikak nazio indartsuenen kontra jokatu du bere maila eta balioa berreskuratzeko. Aurreko bi mundialetan ez du parterik hartu, Pretoriako gobernuaren arrazakeriagatik jasan duen isolamendua dela eta. Hirugarren mundiala antolatzeari sekulako garrantzia eman diote. Rian Oberholzer, txapelketako zuzendariak zera adierazi du: «Nazio bakar bat garelako erakutsi nahi diogu munduari».

Ahaleginak egiten ari badira ere, nabari da oraindik, zuriak gutxiengoa izan arren, ekonomia jabe direla eta beltzak miseria gorrian bizi direla oraindik. Ingelesek sortu zuten joko hau, eta gerora mundura zabaldu zuten. Hego Afrikako zuri aberatsek berea egin zuten kirol hau, eta isolamendua iritsi arte, munduko onenak ziren. Jokalarien fisikoan oinarritutako joko zerabilten; isolatze horrek, ordea, eragina izan zuen eta nazio indartsuenen kontra jokatzera bultzatu ditu egungo rugbya egokitze.

Hego Afrikan jokatzeko duen garrantziaz gain, mundial honek badu kontuan hartzeko beste arlorik, profesionaltasunarena alegia. Orain arte XVeko rugby bildu eta erabili der diru guztia Federazioek, agintariek eta gainerakoek maneiatu dute. Jokalariak, ordea, tarta handi horren zati bat aldarrikatzen dute, dirulaguntza hitz batean esateko. Ez dugu esango jokalariek ez dutela sos bat edo beste jaso, baina beti, azpialdetik sari gisa. Hortaz, karguetan daudenek jasotzen badute, zergatik ez jokalariek?

Ugaritzen ari dira XIIIko rugby profesionalera pasatzen ari diren jokalariek ezagunak. Australian eta Ingalaterran liga indartsuak dituzte. Fourouxe, Frantziako jokalaririk eta entrenatzaile ohiak, nazio horretako liga indartu egin nahi du. Hortaz, mundial hauetan izango dira fitxaketaren bat edo beste egiteko. Superliga sortu nahi dute 96an. Bestalde, Joko Olinpikoak izango dira.

MUNDUKO HIRUGARREN TXAPELKETA

PARTAIDEAK

A Multzoa	B Multzoa	C Multzoa	D Multzoa
Australia	Ingalaterra	Zeelanda Berria	Frantzia
Hego Afrika	Argentina	Gales	Eskozia
Errumania	Italia	Irlanda	Bolikosta
Kanada	Mendebaldeko Samoa	Japonia	Tonga

EGUTEGIA

Eguna	Ordua	Partidua	Lekua	Telebista
95-5-25	14.30	Hego Afrika-Australia	Cap	TF1-Eurosport (dif.23.00)
95-5-26	16.00	Eskozia-Bolikosta	Rustenburg	C+ (Fr)-Eurosport
	18.00	Frantzia-Tonga	Pretoria	TF1-Eurosport
	20.00	Kanada-Errumania	Port-Elisabeth	
95-5-27	13.00	Samoa-Italia	East-London	
	15.00	Gales-Japonia	Bloemfontein	Eurosport
	17.00	Ingalaterra-Argentina	Durban	C+ (Fr)-Eurosport
	20.00	Zeelanda Berria-Irlanda	Johannesburg	
95-5-30	12.30	Samoa-Argentina	East London	
	14.30	Hego Afrika-Errumania	Cap	C+ (Fr)
	18.00	Frantzia-Bolikosta	Rustenburg	TF1
	20.00	Eskozia-Tonga	Pretoria	
95-5-31	13.00	Australia-Kanada	Port Elisabeth	C+ (Fr), (dif.13.35)
	15.00	Irlanda-Japonia	Bloemfontein	
	17.00	Ingalaterra-Italia	Durban	
	20.00	Zeelanda Berria-Gales	Johannesburg	Eurosport- C+ (Fr)(dif. 22.30)
95-6-3	13.00	Tonga-Bolikosta	Potchefstrom	
	15.00	Australia-Errumania	Stellenbosch	C+ (Fr)
	17.00	Frantzia-Eskozia	Pretoria	TF1
	20.00	Kanada Hego Afrika	Port Elisabeth	C+ (Fr)
95-6-4	13.00	Argentina-Italia	East London	
	15.00	Zeelanda Berria-Japonia	Bloemfontein	C+ (Fr)
	17.00	Irlanda-Gales	Johannesburg	C+ (Fr) (dif. 22.55)
	20.00	Ingalaterra-Samoa	Durban	Eurosport
95-6-10	13.00	Lehen final-laurdena (1D-2C)	Durban	TF1
	15.00	Bigarren final-laurdena (1A-2B)	Johannesburg	C+ (Fr)
95-6-11	13.00	Hirugarren final-laurdena (1B-2A)	Cap	C+(Fr)-TF1
	15.00	Laugarren final-laurdena (1C-2D)	Pretoria	C+(Fr)-TF1
95-6-17	14.30	Lehen finalerdia	Durban	Eurosport-TF1
95-6-18	14.30	Bigarren finalerdia	Cap	Eurosport-TF1
95-6-24	14.30	Finala	Johannesburg	TF1-Eurosport (dif.)

Kontuak kontu, bihar hasiko da laugarren lehiaketa garrantzitsua. Joko Olinpikoen, Futbol Mundialaren eta Atletismo Mundu Txapelketaren atzetik. Hor bilduko dira Ingalaterra, Frantzia, Australia edo Hego Afrika bezalako nazio indartsuak alde batetik eta, bestetik, Errumania, Samoa, Tonga, Irlanda, Bolikosta (Costa de Marfil) eta abarren gisako pobreak. Hamasei selekzio lehiatuko dira lau taldeko beste hainbeste multzotan banatuta.

Europak hego hemisferioko Zeelanda Berriaren eta Australiaren nagusitasuna hautsi nahi du behingoz. Horretarako, Inga-

Bihar hasiko den Rugby Mundiala munduko laugarren konpetizioa da, Joko Olinpikoen, Futbol Mundialaren eta Atletismo Mundialaren atzetik.

laterrak eta Frantziak aurreko bi mundialetan lortu ez zuten azken koxka gainditzea dute helburu, finala irabaztea. Bidea, ordea, ez dute batere makala izango.

Australiako selekzioak azken urteetako blokeari eustea lortu du. Lehen lerro osoa, John Eales, Ofahengaue eta atzeko Lynagh, Horan, Little eta Campese. New Zealandek oso denboraldi txarra egin zuen 94an Frantzia, Australia eta Ingalaterraren kontra galduz, baina, edozeini irabazteko gai da. Hego Afrikak, berriz, etxean jokatu du, eta horrez gain, bere balioa erakutsi du azken bolada honetan, neurri batean, bederen.

Lehen multzoa indartsuena

K.A. / DONOSTIA

► **A Multzoa:** Zertxobait hitz egin dugu Hego Afrikaz. Bere lehen Mundiala da, eta isolamendua amaitu bezain laster, nazioarteko partidu ugari jokatu du maila berreskuratzeko. Jakitako falta dena zera da, hori nahikoa izango duen. Australiak ez du behar izan 2. Mundiala irabazi zuenetik. Kanadak, jokalaririk erraldoiak izateaz gain, jokatu badakiela erakutsi nahi du. Errumaniak irudi txukuna eman nahi du, ekonomi krisi larriak jota baitago.

► **B Multzoa:** Ingalaterrak txapela du helburu, iaz txapelduordea izan baitzen eta V Nazioetako txapelketan Europako onena dela erakutsi du. Samoari azken Mundialeko arrakastak sekulako indarra eman dio, baina jokalaririk askok jo du kanpora. Fisikoan eta dinamismoan oinarritzen du jokoak. Aurrean ahul samar aritzen dira. Argentinan, nahiko zaharkitua geratu da joko era. Profesionaltasuna ere hitzetik hortzera dabil. Italiak ezustea eman nahi du, joan den udan emaitza onak lortu baitzuten.

► **C Multzoa:** Galesek urte batetik bestera behera egin du eta Mundial honetan bere balioa erakutsi nahiko du. Japoniarentzat hirugarren Mundiala da. Saskibaloiaren eta judoaren atzetik kirol garrantzitsua da. Unibertsitate mailan jokatu da nagusiki eta aurrera jarraitzeko, lanean hasi behar dute. Hego Pazifikokoekin harreman onak dituzte. Arazo nagusia jokalarien garaiera apala. Irlandak oso gutxi erakutsi du V Nazioetakoan. Hala ere, ez du inoiz galdutzat ematen ezer. Zeelanda Berriak *haka* (gerlarien dantza) indarrean jarri beharko du galdutako prestigioa berreskuratzeko.

► **D Multzoa:** Pentsa liteke Frantziak eta Eskoziak erraza izango dutela, baina ez da ahaztu behar Tongako jokalaririk erdiak Zeelanda txapelketan ari direla eta beste erdiak Australiakoan. Bolikostarentzat lehen Mundiala izango da eta presiorik gabe jokatu du, ikastera doa eta.